

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:
LITERATURA SARI BANAKETA:
*OLERKIA, ANTZERKIA, ELEBERRIA, SAIOA***

Bilbo, egoitza, 2000-XII-15

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA LITERATUR SARIAK: 2000 SARI BANAKETA

Bilbo, 2000-XII-15

*Joserra Bilbao,
BBK-Elebitasun Zerbitzuko Burua*

Eguerdi on jaun-andreok.

Aspaldion, urtean birritan alkartuten gara hemen, euskal literaturaren atxakian. Bata, gaurkoa lako egunean, Txomin Agirre, Toribio Alzaga, Felipe Arrese eta Mikel Zarate sariak emoteko. Bestea, udabarri aurrean, idazle gazteei jagoken Azkue sariak banatuteko.

Instintoz, gura izan barik, idazleak nongoak begiratuten dogu. Ez dakit nik hau herrialdekeria ala herrialdetasuna dan. Dana dala, behin baino gehiagotan konturatu izan naz, gaztetxoek sariketetan, gaurko honetan baino dibertsidade geografiko handiagoa egoten dala, Euskal Herriko herrialde guztietako ordezkariak izaten dirala. Hutsunea egotekotan, iparraldeko haurrideena izaten da, ulertzekoa, parte hartzaileen adina kontuan hartzen badogu.

Gehienetan, giputzak izaten dira nagusi, ez dago zertan esan, baina gaurkoan bizkaitarrak nagusi jakuz, sarioi izena emoten deutszen idazleen proportzino berean, hiru bizkaitarrak (Txomin Agirre –Ondarroa–, Felipe Arrese –Otxandio– eta Mikel Zarate –Lezama– eta bat giputza, Toribio Alzaga –Donostia–). Esanak esan, zorionak bihoitz-bihotzez, Aitor Arana, Juan Karlos del Olmo, Juan Ramon Madariaga eta Patxi Juaristiri eta ea hurrengo batean be alkartuten garan berton.

Herrialdekeriaz berba egingo baneu, poztekoa dala esango neuke, bizkaitarra nazen aldetik, baina herrialdetasunari leku egiten badeutsat, ez da hain atsegina. Itxaropena, betiko moduan, gazteengan jarri beharko dogu.

Bertsolaritzan be holako zeozetarantz goazala esan leike, lehengo piramide estuari oinarria zabaltzen joan jakon heinean, Euskal Herri osoko bertsolariak agertu diralako, baita arabarrak be.

Eta bertsolaritza aitatzuz, gogoratu, domekan, Bizkaiko txapelketaren finala iznago dogula Euskalduna jauregian. Seguru gagoz, jauregia bete egingo dala eta bertsolariak eskainiko deuskuen produktua, jokalekuaren neurrikoa izango dala.

Beste barik, Gabon jai zoriontsuak guztioi.

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIAK

Bilbo, 2000-XII-15

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jaun-andreak, agur eta eguerdi on. Barkamena eskatzen dizuet lehenik, berant etorri bainaiz, baina banuen zerbait egiteko eta beharrezko baitzen, pixka bat berantarekin etorri naiz. Eta, beraz, nire sarrera mintzaldia izanen da bukaera mintzaldia.

Lehenik nahi nituzke esker bizienak eman gure laguntzaileei eta dirua ematen dutenei, ikusten baitut hor zenbait milioi emanak direla, gehiago dena, gero, horiek agertuko direla eta denek badakigu, pixka bat idazten dugunok, badakigu liburu baten kaleratzea zerbait dela, egiazko sortze bat dela, lehenbiziko jaiotzea egiten da idazten delarik, baina ez baldin bada kaleratzen, kanporat jalgitzen, besteak erraiten zuen bezala, ez dela ezer hor. Beraz, hemen ditudan jende horiek nahi ditut osoki agurtu lehenik eta denbora berean esker bizienak eskaini ere.

Zorionak zuei, bai irabazle izan zaretenoi, eta pozten naiz ikustea lauak hor izan zaretela sarituak, erran nahi baita, ez dela utzi debaldetan sari bat. Horrek erran nahi du, alde batetik, lan onak zirela, zeren eta, dakizuen bezala, egon dira sari batzuk eman gabe, epaimahaikideek pentsatu baitzuten ez zela eman behar eta Euskaltzaindiak kalitatea ere zaindu behar baitu. Beraz, zuon sari horiek, eta zuek sari hori irabazteak erakusten du kalitate oneko lanak aurkeztu dituzuela. Beraz, zorionak, zuoi.

Eta nahi nituzke ere eskertu, epaimahaietan izan diren 12ak, Eugenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu –hemen ikusten baitut–, gero, Gorka Aulestia ere hemen da, Txomin Peillen, Ana Toledo, Mikel Lasas, Lourdes Otaegi, Jon Kortazar, Andolin Eguzkitza, Adolfo Arejita eta Xabier Altzibar. Horiek ere bere gain hartu dute liburu horien irakurtzea, nola erran nezake, behar den bezala aztertzea, ikustea ze mami ona zeukaten, eta, beraz, horrek ere galde egiten baitu, ez bakarrik lana, baina denbora ere; beraz, nahi ditut Euskaltzaindiaren izenean bihotzetik agurtu.

Eta agurtzen dut eta eskerrak emaiten prentsari ere, gaur baitakit hor direla; haien beharra ere badugu, argi eta garbi erraiten dut, haien beharra badugula, hemen gaude-la, beti, heientzat irekiak eta Euskaltzaindiak eta BBKk elkarrekin ematen duten sari horiek zerbait baitira. Beraz, heien presentzia ere azpimarratzen dut hemen. Nik ikusten dut honekin denak erranak ditudala, ez dudala nehor ere ahazten, eskerretan, zorionetan. Eta, beraz, bukatutzat ematen dut gure goizeko ekitaldi hau. Egun on denoi.

LITERATURA SARIAK 2000

Bilbo, 2000-XII-15

Gaur, 2000ko abenduaren 15ean, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak antolatutako Literatura Sarien emaitzak jakitera ematen dira. Ondoko hauek izan dira irabazleak, sariak, eta epaimahaikideak:

Txomin Agirre Saria. Eleberria: Aitor Arana, *Historia lazgarria*.

Saria: 1.300.000 pta.

Epaimahaikideak: Eujenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu.

Toribio Altzaga Saria. Antzerkia: Juan Karlos del Olmo, *Aldi joana, joana*.

Saria: 800.000 pta.

Epaimahaikideak: Gorka Aulestia, Txomin Peillen, Ana Toledo.

Felipe Arrese Beitia Saria. Olerkia: Juan Ramon Madariaga, *Amodioa batzue-*

tan.

Saria: 800.000 pta.

Epaimahaikideak: Mikel Lasa, Lourdes Otaegi, Jon Kotazar.

Mikel Zarate Saria. Saioa: Patxi Juaristi, *Euskal Herria globalizazioaren*

aurrean.

Saria 1.000.000 pta.

Epaimahaikideak: Andolin Eguskitza, Adolfo Arejita, Xabier Altzibar.

AITOR ARANA LUZURIAGA

TXOMIN AGIRRE SARIA. ELEBERRIA

“HISTORIA LAZGARRIA”

Gure gizartean bada gizaki mota bat, oso urria eta ezezaguna, hartaz gutxitan oroitzen garena. Nekrofiloa deitzen zaio. Hilobi-lapurra ere dei geniezaioke, eta bakarren batek Hermes jainkoaren bidelaguna dela esan lezake. “Historia lazgarria” liburuan uszteko hiru nekrofilo aurkituko ditugu, bi gizon eta emakume bat, hildakoen egiazko lagunak direnak. Gizaki bitxi hauen sentimenduak, bizimodua eta elkarren arteko harremanak ezagut daitezke hor, beti ere, hilerrietako eta gorputegietako giro lasai eta zurunean.

Aitor Arana

Aitor Arana (Legazpi, 1963). Hamazazpi urterekin idazten hasia. Lau urtez (1983-1987) euskara irakasle izana Legazpiko AEK eta Udal Euskaltegian. XUT literatur aldizkariko lankide eta arduraduna. Sei urtez Legazpiko HOTS kultur aldizkariko lankide eta zenbait urtez arduraduna.

Liburu sortuak:

Azkonarren laguna (Elkar, 1987), *Loaren bidez* (SM, 1990), *Afrikako semea* (Elkar, 1991), *Jainko Txikia* (Elkar, 1994), *Ipuin lizunak* (Kriselu, 1994), *Urtegi misteriotsua* (Elkar, 1994), *Ipuin ilunak* (Kriselu, 1995), *Buztantxoren larrialdiak* (Elkar, 1996), *Haize gorria* (Kriselu, 1996), *Uxue eta Urtzi* (Ibaizabal, 1997), *Gaueko ortzardarra* (Pamiela, 1997), *Nijterida eta Koomori saguzarrak* (Ibaizabal, 1998), *Herauskorritse* (Mensajero, 1998), *Onan* (2000, Txalaparta), *Ipuin-entzulea* (2000, BBK Fundazioa - Txomin Agirre saria, 1999. urtean), *Atharratzeko erregina* (2000, Hiria), *Erregina bahitua* (2000, Edebe-Giltza), *Josu, Asier eta...* (2000, Mensajero).

Itzulpenak:

Memorajhoj de euska bobino (1999, Asun Iraza SL - B. Atxagaren “Behi euskaldun baten memoriak” esperantoz), Bervalen gertatuak (2000, Hiria - Esperantotik euskarara zuzenean itzulitako lehen liburua, jatorriz, Louis Beaucairek idatzia).

Sariak:

Bilintx (1997), Baporea (1989), Azkue (1990), Txomin Agirre (1999).

JUAN KARLOS DEL OLMO SERNA

TORIBIO ALTZAGA SARIA. ANTZERKIA

ALDI JOANA, JOANA

Talde batek Joana Albretekoaren gaineko antzezlanak prestatzen dihardu ikusleen aurrean. Egoera: XVI. mendea, Nafarroako erresuma zaharra bi zatitan bortxaz banaturik. Nafarroa Beherean emakume bat agintari. Erreinu txikia, Espainiako eta Frantziako gorte boteretsuetako erregeek akuilaturik. Erresuma protestantea erresuma papistek inguratua. Eskualde euskalduna hizkuntza frantsesak eta espainolak mugaturik. Munta handiko galdera erantzukizun: Nola hil zen benetan Joana Labrit? Pozoiturik, Dumasek eta beste batzuek esan bezala, ala tisiak jota? Tartean Leizarraga eta lehenengo euskal itzulpena. Tartean Nostradamus eta Joanaren semeari iragarri zion etorkizun zorionsua. Tartean, antzezleen alkarrekiko harreman eta liskarrak. Eta Biblia. Eta Erdi Aroko antzezleen egitura. Eta Aita Santuaren eskumikua. Baita betiko galduko zen aldi batekiko bihotz mina ere. Nonbait, egun Euskal Herriak bizi duen egoeraren oihartzuna dakarrela.

Juan Karlos del Olmo

Juan Karlos del Olmo (Barakaldo, 1958). Ikasketez, maisua eta euskal filologoa, Lanbidez, itzultzaile-interpretea. Irakaskuntzan (Muskizko ikastola, Gabriel Aresti euskaltegian) eta antzerkigintzan (Barakaldoko Udalaren "Taller de Teatro Estable" delakoan zuzendaria) jardun eta gero, 1993ko martxotik aurrera "itzultzaile-interpretea" Donostiako Udalean.

Euskara ikasteko liburu batzuk argitara eman ditu, besteak beste, "Berbetan 4 (ikaslearen liburua)", Bilbao, 1990; "Berbetan 4 (irakaslearen liburua)", Bilbao, 1990; "Berriketan 3 (ikaslearen liburua)". Bilbao, 1992.

Bestalde, hainbat artikulu ere idatzi du Euskal Herriko aldizkari batzuetan: "Zientzi Fikzioa" (Entseien aldizkaria, elkarlanean, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1979); "12 urratsok direla eta" (*Ele* aldizkaria, AEK, Bilbao, 1990); "Nola irakatsi gramatika" (*Ele* aldizkaria, AEK, Bilbao, 1992); "-na konpletiboa Fray Bartolomeren Ikaskizunetan" (elkarlanean, *ASJU*, 1994); "Hitz ezetik mihia zaurtzen ez dik. Zenbait gogoeta kalifikazioaren gainean" (*Senez* aldizkaria, 1996); "Itzultzailea ugazaba biren morroia" (*Senez* aldizkaria, 1998); "Zertan dira administrazioko itzultzaileak" (*Jakin* aldizkaria, 1999).

1995.ean *Irlandako amonaren ipuinak* liburua argitaratu zuen. Eta 1998. urtean *Toribio Alzaga Antzerki Saria* jaso zuen, *Jon gurea, Parisen hatzana* lanagatik.

JUAN RAMON MADARIAGA ABAITUA

FELIPE ARRESE BEITIA SARIA. OLERKIA

AMODIOA BATZUETAN

Udagoienaren unerik gorenean lurra begiratu behar dugu udagoiena bera zer den ulertu ahal izateko. Lurraren gainean orbela kausituko dugu errenditurik. Esan deza-kegu adabakiz beteriko udagoiena ikusten dugula urteko. Orbelaz gain, adurenean, hai-zete, eurite, araba-zozo, lantzean behineko elur lotsati, eta agian ikustezin gertatzen zaizkigun beste ekintza xumeei esker, badaukagu guk betiko definituriko udagoiena. Baina gehiago ere izan liteke.

Udagoienean nola, hala agitzen da amodiaren estratan ere. Derrotaz, ardurez, so-frikarioz, poztasunez beterik agertzen zaigu amodioa. Batzuetan ilarra bezain borobi-la, besteetan animalia baten aladurak bezain iraunkorra.

Ezustean amodioaren eszenak identifikatzen, sailkatzen, saiatu zen olerkaria, *Amodioa batzuetan* izeneko poemarioa sortu zen arte.

Juan Ramon Madariaga

Juan Ramon Madariaga (Bilbo 1962). Euskal filologia ikasi zuen Deustuko Uni-bertsitatean. Gaur egun bertan dihardu irakasle.

1988an, Bizkaiko Foru Aldundiko olerki saria irabazi zuen Imentzioaren *Perga-muak* (1989) izeneko poema-bildumarekin. Harrezkero beste hiru liburu palzaratu ditu: *Galera Errepikatuak* (Susa, 1992) eta *Elaien Ausardia* 'Imajina Euskadi' saria izan zena 1991.ean (In Neguko Antzarak, Deustuko Unibertsitatea, 1993). Gero, *Argia sortzen den izartegia* plazaratu zuen (Alberdania 1996). Azken obrari esker 1997ko Kritika Sa-ria eman zioten.

Joan den urtean *Ultimísima Poesía Española Antología, Milenio* izeneko liburuan plazaratu zituzten gaztelaniaz jarritako bere poema batzuk.

PATXI JUARISTI LARRINAGA**MIKEL ZARATE SARIA*****EUSKAL HERRIA GLOBALIZAZIOAREN AURREAN***

Globalizazioa hitzetik hortzera eta ahotik belarrira bolo-bolo dabilen kontzeptua bada ere, ez dago horren ondorioei buruzko adostasunik.

Batzuentzat, globalizazioak pentsamentu bakarra, inperialismo ekonomikoa, homogeneizazio kulturala eta, ondorioz, estaturik gabeko herrien desagertzea ekarriko ditu.

Besteentzat, globalizazioan sortzen ari diren teknologia berrien hedapena herri txikien mesedetan izango da.

Saiaketa honetan, ikuspuntu nagusi bi hauek aurkezteaz gain, globalizazioak Euskal Herriko demografian, ekonomian, politikan, kulturen zein baloreengan izango dituen eraginak aztertzen dira. Era berean, globalizazioaren aurrean prestatuturik egoteko hartu beharko liratekeen zenbait erabaki estrategiko ere aurkezten dira.

Patxi Juaristi Larrinaga

Patxi Juaristi Larrinaga Markina-Xemein-en jaio zen 1967. urtean. Soziologian Doktorea da (1995). 1990-1993. urte bitartean ikerlariak trebatzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko beka bat izan zuen. Tesia egiteko prozesuan Galeseko Bangor Unibertsitatean (1992), Texas-eko A&M Unibertsitatean (1993) eta Nevada-Renoko Unibertsitatean (1994) ikerlari gisa aritu zen.

1998. urtean irakasle gonbidatua izan zen Idaho-ko Unibertsitatean. Gizarte zientzien metodologiari buruz eta Euskal kultura eta euskara, gutxiagotutako hizkuntzak eta euskaldunen baloreei buruzko zenbait ikerketa, artikulua eta liburu argitaratu ditu; nabarmentzekoa da beste hiru idazlerekin landutako "Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzaileren ahotan" (Labayru).

1993. urtetik Euskal Herriko Unibertsitateko Estatistika eta Ikerketa Tekniken irakasle da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean.

AITOR ARANA LUZURIAGA

PREMIO TXOMIN AGIRRE. NOVELA

HISTORIA LAZGARRIA

Uno de los seres –escasos y desconocidos– que pueblan nuestra sociedad es el necrófilo. Reparamos poco en su existencia. También podría ser llamado ladrón de tumbas y, seguro, más de uno diría que es amigo del dios Hermes. En el libro *Historia lazgarría (Una historia terrible)* encontramos a tres supuestos personajes de gustos necrófilos, dos hombres y una mujer, sinceros amigos de los cadáveres. El autor nos cuenta en esta historia los sentimientos de estos seres extraordinarios, sus modos de vida y las relaciones que mantienen entre ellos.

Aitor Arana

Aitor Arana (Legazpi, 1963). Comienza a escribir a los diecisiete años. Ejerce como profesor de euskera entre los años 1983 y 1987 en AEK y en el euskaltegi municipal de Legazpi. Participa en calidad de responsable en la revista literaria *XUT*. A lo largo de seis años ha sido redactor, y también director, de la revista cultural de Legazpi *HOTS*.

Obra literaria:

Azkonarren laguna (Elkar, 1987), *Loaren bidez* (SM, 1990), *Afrikako semea* (Elkar, 1991), *Jaïno Txikia* (Elkar, 1994), *Ipuin lizunak* (Kriselu, 1994), *Urtegi misteriotsua* (Elkar, 1994), *Ipuin ilunak* (Kriselu, 1995), *Buztantxoren larrialdiak* (Elkar, 1996), *Haize gorria* (Kriselu, 1996), *Uxue eta Urtzi* (Ibaizabal, 1997), *Gaueko ortzadarra* (Pamiela, 1997), *Nijterida eta Koomori saguzarrak* (Ibaizabal, 1998), *Herauskorritse* (Mensajero, 1998), *Onan* (2000, Txalaparta), *Ipuin-entzulea* (2000, Fundación BBK - Premio Txomin Agirre, 1999), *Atharratzeko erregina* (2000, Hiria), *Erregina bahitua* (2000, Edebe-Giltza), *Josu, Asier eta...* (2000, Mensajero).

Traducciones:

Memorajhoj de euska bovino (1999, Asun Irazza SL - *(Behi euskaldun baten memoriak*, de Atxaga, en esperanto), Bervalen gertatuak (2000, Hiria - primer libro traducido directamente del esperanto al euskara. Escrito por Louis Beaucair).

Premios:

Bilintx (1997), Baporea (1989), Azkue (1990), Txomin Agirre (1999).

JUAN KARLOS DEL OLMO SERNA

PREMIO TORIBIO ALTZAGA. TEATRO

ALDI JOANA, JOANA

Imaginemos que un grupo de teatro intenta montar una obra de teatro sobre la reina Juan de Albret, última del Reino de Navarra en Ultrapuertos, impulsado en parte por un enigmático pasaje de una obra de Dumas. Tendrán entre manos diversos materiales para ir construyendo la trama y dando vida a los personajes. Juan de Albret, mujer que reinó en un pequeño dominio en el que la mayoría de los súbditos se expresaban en euskara o en bearnés. Un reino protestante entre reinos papistas y hegemónicos, tanto política como lingüísticamente. Reina, mujer de letras, campeona de su religión, impulsora de la traducción al euskara, madre... mujer, ser humano, en una palabra. Los actores y actrices verán cómo sus propias relaciones se van entreverando con los distintos pasajes de la obra. Una gran incógnita histórica –¿cómo murió Juana de Albret, envenenada o víctima de la tisis y del estrés?– y una situación histórica que guarda grandes similitudes con el actual momento de Euskal Herria. Sin olvidar que Nostradamus y la Matanza de la Noche de San Bartolomé también tienen un especial significado en la trama.

Juan Karlos del Olmo

Juan Karlos del Olmo (Barakaldo, 1958). Maestro y filólogo, dedica su actividad profesional a la traducción e interpretación de textos. Después de haber dedicado varios años a la enseñanza (Ikastola de Muskiz, euskaltegi Gabriel Aresti) y al teatro (como director del “Taller de Teatro Estable” municipal de Barakaldo) a partir de 1993 ocupa el puesto de traductor-intérprete en el Ayuntamiento de Donostia.

Es autor de varios métodos de aprendizaje de euskara: *Berbetan 4* (libro del alumno), Bilbao, 1990; *Berbetan 4* (libro del profesor), Bilbao, 1990; *Berriketan 3* (libro del alumno), Bilbao, 1992.

Asimismo, ha escrito numerosos artículos en diversas revistas del País Vasco. Zientzi Fikzioa” (revista *Entseia*, vv.aa., Universidad de Deusto, Bilbao, 1979); “12 urratsok direla eta ” (revista *Ele*, AEK, Bilbao, 1990); “Nola irakatsi gramatika” (revista *Ele*, AEK, Bilbao, 1992); “-na konpletiboa Fray Bartolomereren ikaskizunetan” (vv.aaa., ASJU, 1994); “Hitz ezetik mihia zaurtzen ez dik. Zenbait gogoetan kalifikazioaren gainean” (revista *Senex*, 1996); “Itzultzailea ugazaba biren morroia” (revista *Senex*, 1998); “Zertan dira administrazioko itzultzaileak” (*Jakin*, 1999).

En 1995 publicó el libro *Irlandako amonaren ipuinak* y en el año 1998 recibió el Premio Toribio Altzaga de Teatro que otorgan Euskaltzaindia y Bilbao Bizkaia Kuxta, por su obra *Jon gurea, Parisen hatzana*.

JUAN RAMON MADARIAGA ABAITUA**PREMIO FELIPE ARRESE BEITIA. POESIA****AMODIOA BATZUETAN**

En los momentos álgidos del otoño, debemos fijar nuestras miradas en la tierra, para poder comprender de verdad en qué consiste el otoño. Entonces hallaremos la hojarasca sobre la tierra. Podemos decir que todos los años asistimos al espectáculo de un otoño repleto de remiendos. Además de la hojarasca, generalmente, vientos, lluvias, estorninos, a menudo la tímida y ocasional nieve. Gracias a éstos y, acaso, a toda una serie de fenómenos humildes y sencillos que pasan desapercibidos, nos hacemos con nuestro propio concepto de otoño. Pero éste puede ser mucho más.

Al igual que el otoño, también el amor discurre por sus propias sendas. El amor se nos aparece lleno de derrotas, remordimientos, sufrimientos, alegrías. El poeta escribió diversos momentos del amor y así surgió el poemario *Amodioa batzuetan*.

Juan Ramon Madariaga

Juan Ramon Madariaga (Bilbo 1962). Estudió Filología Vasca en la Universidad de Deusto, donde en la actualidad es profesor.

En 1988 ganó el Premio de Poesía convocado por la Diputación Foral de Bizkaia, con el poemario *Imentzioaren Pergamuak* (1989). Con posterioridad, ha publicado tres libros más: *Galera Errepikatuak* (Susa, 1992) y *Elaien Ausardia*, que recibió el Premio 'Imagínate Euskadi', 1991. Más tarde publicó *Argia sortzen den izartegia* (Alberdania 1996). Esta última obra le valió el Premio de la Crítica de 1997.

El pasado año se publicaron varios de sus poemas, traducidos al castellano, formando parte del libro *Milenio*, Antología de la Últimísima Poesía Española.

PATXI JUARISTI LARRINAGA

Premio Mikel Zarate. Ensayo

EUSKAL HERRIA GLOBALIZAZIOAREN AURREAN

El concepto de la globalización se ha convertido en tema de muchas conversaciones, habitual en numerosas puestas en común. Sin embargo, no existe consenso en torno a sus consecuencias.

Para algunos globalización es sinónimo de pensamiento único, imperialismo económico, homogeneización cultural y, como consecuencia de todo ello, capaz de traer consigo la desaparición de los pueblos sin estado. Para otros, sin embargo, la expansión de las nuevas tecnologías que surgen de la mano de la globalización acarrearán consecuencias positivas para los pueblos pequeños.

En este ensayo se abordan estos dos puntos de vista. Asimismo, se analizan las consecuencias que la globalización puede tener sobre Euskal Herria, en ámbitos diversos como la demografía, la economía, la política, la cultura y los valores de diversa índole. Por fin, se detallan algunas de las decisiones estratégicas que habría que tomar de cara a estar preparados ante la globalización.

Patxi Juaristi Larrinaga nació en Markina-Xemein en 1967. Es Doctor en Sociología (1995). Entre los años 1990-1993 disfrutó de una Beca de Investigación otorgada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Realizó la tesis en la Universidad de Bangor, en Gales (1992), en la Universidad A&M de Texas (1993) y en la Universidad de Nevada-Reno, en las cuales desempeñó trabajos de investigación.

En 1998 fue Profesor Invitado en la Universidad de Idaho. Ha publicado diversos trabajos de investigación, artículos y libros sobre metodologías de las ciencias sociales, sobre cultura vasca y euskara y acerca de las lenguas minorizadas y los valores de la sociedad vasca; cabe destacar el libro escrito de forma conjunta con otros tres autores *Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzailearen ahotan* (Labayru).

Desde 1993 ejerce de profesor de Estadística y Técnicas de Investigación en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la Universidad del País Vasco.

EUSKALTZAINDIA - BBK SARIAK

2001-VI-25

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Egun on denei eta ongi etorri etxe honetara. Hemen gaude bildurik berriz ere BBK eta Euskaltzaindiak antolatu eta sarituak izan diren lanen aurkezteko. BBK-k betetzen du eman duen hitza, ez bakarrik sariak emanez, baina liburuak publikatuz ere. Agurtzen ditut BBK-ren izenean etorri diren José Ramón Bilbao eta Gorka Martínez jaunak.

Eskertzen ditut Euskaltzaindiaren izenean pentsatuz aspaldi honetan bezala segituko dugula partzuergoan, elgarrekin daukagun xede hori beteko dugula luzaz.

EUSKALTZAINDIA - BBK SARIAK

2001-VI-25

Jose Ramon Bilbao

Eguerdi on. Egia da, gu gatozen lekutik hona etortea, BBKren bulegoetatik hain zuzen, salto handia egitea dala, salto pozgarria

Hau da, hona teorian, egiteko hotz bat betetera gatoz, sariketa eta liburu batzuk aurkeztera, baina gero hemen, atsegin handiz, beste mundu bategaz topaten gara.

Gaur, esaterako, lau egile daukaguz aurrean, bakoitzak bere ikuspegiagaz behar egiten dauena. Egindako beharraren barri emon deuskuenean ikusi dogu, honelako sariketak antolatzeak, zeozertarako balio dauala.

Batetik, Juan Ramon Madariagak eta Patxi Juaristik, mundua ulertzeko era bi aurkeztu deuskue. Juan Ramonek, sentimenduen bitartez egindakoa, poesiak horretarako bidea ematen deusolako. Patxik, beste crea, zientziaren bitartez egindakoa, globalizazioaren mamua aurrean daukagun honetan, zelan ulertu eta zer egin behar dan dinoskuna.

Horrek zer-pentsa handia emoten deusku, Interneten munduan sartzeko tan gabiltzalako, laster BBK-k atari bat egingo dauala-eta. Argi dago Interneten eta holako lekuetan aurrera egin behar dala, baina beste gauzetan atzera egin barik. Aurrean dodan Karlos del Olmok erakutsi deuskun moduan, historia interpretatu egin daiteke eta historia sarritan, manipulatu eta falsifikatu be egiten da. Honen adibide ugari daukagu azken aspaldi honetan. Hau dala-eta, mundu barri horren aurrean, bere historia ondo ezagutzen ez dauan herriak, etorkizun eskasa eta laburra dauka, besteen historia interesadunek jan egingo dabelako.

Azkenik, Aitor Aranak aurkeztu deuskun elebarriak, denbora pasarako eta irudimena lantzeko bidea emoten deusku, momentu batean atsedena hartzeko bidea.

Honegaz guztiagaz esan gura dodana da, literaturari emoten jakozan launtzak, ez dirala alperrekoak ezta anakronismoa be. Alderantziz, uste dot oso beharrezkoak dirala eta gaur egun inoiz baino beharrezkoagoak, izan be, la-

guntzea bekar izatekotan, arlo horreek bekar dabelako beste edozeinen ganetik. Besteak, globalizazioa, Internet eta enpararuak, etorri datozkuz, kanpotik eta indartsu, guk gura izan zein ez.

Ez dakit ondo zenbakarrena dan gaur aurkezten dogun Literatur Sariakentzen edizio hau, 30 urtetik gorako lankidetzaz dagoalako BBK eta Euskaltzaindiaren artean. Ondo dakidana da, ez litzatekeala azkena izan beharko eta ez dala izango, argi dogulako bidea hauxe dana.

Aurtengo sariaren oinarriak, aurreko urteetako antzekoak dira, elebarri, antzerki, olerki eta saioren atalak hartzen dabaz eta aurten azken aldiz, pezetatan emongo dira. Aurrerantzean, atea joka datozkun eurotan izango dira. Europa barruan sartuagoak sentiduko gara, diru hori eskuetan dala.

Sariaren oinarrietan, aurten aldaketatxo bat dago. Orain arte lanak bidaltzeko helbidea BBKren Kultur Aretoa bazan, obretan gabiltza-eta, aurten lanak Euskaltzaindiara bertora bialdu behar dira, euskaldun guztion etxe honetara. Aurkezteko epea, urriaren 16an amaitzen da, hemendik hiru hilabetera gixti gorabehera eta sariak urtea amaitu baino lehenago emongo dira.

Eta nire partetik, besterik ez. Eskerrik asko Euskaltzaindiari bere egoitza izteagatik aurkezpenak egiteko eta ematen deuskun babesa emoteagatik. Eskerrik asko egileei eta baita kazetariei be, ze, zuok egiten dozuen beharra ezinbestekoa da holako gauzei zabalkundea eta ospea emoteko. Agur eta hurrengorarte.